




1995eko apirilak 21 / 104. zbk.

Astekaria



elgoi



Josemi Gabilondo
abiaduraren gidaria

LIBURVAREN
EGYNTA

LARUNBATA 22
eta
ASTELEHENA 24

%10eko BEHERAPENA liburuetan
eta umeentzako oparitxo bat

PITXIKETXU





OLAIZAGA KIROLDEGIA

Giro aproposa eta profesionala

GARBITASUNA \neq KALITATEA



SAUNA

MASAIA

SQUASH

IGERILEKUA

AEROBIC

KARATEA

FRONTOIA

MUSKULAZIOA

MATRIKULA ZABALIK

San Roke, 1 Tel: 74 13 61

**Orain matrikulatuz gero
%40ko deskontua**

*Irtsi da udaberria
Kiroldegira!*



**Maiatzetik
aurrera
AQUAEROBIKeko
ikastaroak
berriro**



elgoi**BARREN**

Nafarroa enparantza 2

☎ 74 41 12

ARGITARATZAILEA:

Elgoibarko Izarra.

LAGUNTZAILEA:

Elgoibarko Udala.

HIZKUNTZA ARDURADUNA:

Anjel Ugarteburu.

KAZETARIAK:

Ainhoa Lodoso,

Jasone Osoro.

MAKETATZAILEAK:

Maitte Rementería,

Edu Sanz.

PUBLIZITATEA:

Nekane Etxaniz.

ADMINISTRATZIOA:

Josune Fernandez,

M. Angeles Ortuoste.

KOLABORATZAILEAK:

Andres Alberdi, Esteban Antxustegi, Pello Arrieta, Felix Arrizabalaga, Belen Arrizabalaga, Mikel Artola, Mikel Cornejo, Izaskun Elizburu, Jon Etxabe, Jon Eugi, Koldo Galdona, Jose Mari Galdos, Ina Garagarza, Joseba Gorosabel, Lorea Gorostiaga, Xabier Gorriti, Ana Igartua, Maitte Iriondo, KOKOE, Joseba Konde, Edurne Kortia, Imanol Larrañaga, Antonio Matias, Susana Mujika, Maitte Solozabal, Karmelo Urdangarin, Aitor Zabaleta, Julen Zabaleta.

BANAKETA ARDURADUNA:

Imanol Larrañaga

INPRIMATEGIA:

Gertu koop. E.

(Zubillaga Oñati)

TIRADA: 3.500 ale

LEGE GORDAILUA: SS-1.038/92

ISSN: 1133-021X

elgoi**BARREN**ek ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.



Idazleari

Ez dakit noiz hasi nintzen irakurtzen. Señorita Saturrekin izango zen, edo piskat geroago. Gogoratzen naizenetik, beti gustatu jata ipuinak entzutea. Nere amak eta aitak kontatutakoak, Fernando Amezketarrenak, santuen bizitzak edo Elgoibarko eta familiako esanak entzuteko prest egoten nitzan beti, inguruko danak aspertu arte.

Irakurri, berriz, etxian zeuden liburu eta rebista guztiak irakurtzen nituen, txistedunak edo "Hadas" deitzen ziren beste haiek ere. Gero kalera atera eta lagunen artian aldatzen genduazen.

Bazeuden ipuin batzuk "Duo Dinamico"renak. Nere lagun bat kantante hauen "fan" handia zan eta kolekzio guztia egin zaban. Seguru oraindik gordeta dauzkala, enkuadernatuak eta guzti.

Geroago, "novela rosa" izeneko hoiek hasi nitzan irakurtzen, Corin Telladorenak. Dudia nakan etxian holakuak irakurtzen lagako ote zien edo ez eta horregatik, komunian bakarrik irakurtzen nitxun eta amak ez ikusteko gona azpitan gordetzen nitxuan. Ai, zenbat amets polit ipuin hoiekin!

Holaxe, poliki poliki, zenbat liburu irakurri ote ditzudan! Ezin leike esan zein gustatu jatan gehixen baina, biografiak aipatuko nituzke: Rabindranat Tagore, Marie Curie, Evita Peron, Gabriela Mistral, Isadora Duncan, Chico Mendezen bizitza "Senderos de libertad" liburuan... Pertsona hauek gauza bat dute amankomu-

nean: euren bizitzen esperientziak gure artean bizi dira oraindik, dena aberasten.

Herrien historiak ere gustatzen zaizkit. Herriei buruzko liburuek, hitz artean aintzinako gauzen nostalgia ematen digute eta aurreko denbora hobea izan zala pentsatzen dogu, edo desberdina behintzat.


Bestalde, gero eta gehiago ari naiz irakurtzen Elgoibarko historia; jaietako programetan ateratzen dutena, Apuntes etnograficos, Santa Klara eta San Frantzisko elizeri buruzkoak, Morkaikok 50. urteurrena ospatzeko bere historiari buruz argitaratu zuen liburua bai eta sello erakusketan ateratzen duten liburuxoa ere. Oso interesgarriak izan dira P.M. Urruzuno eta Musika Bandari buruzkoak. Hor dago Errosario kaleko jaien programa, zenbat esaera eta eginkizun polit eta zein umore ona zeukaten aintzinako herritarrek!

Eta ez dot amaitzia nahi hau esan gabe: Txitxilbakio eta BARRENi esker, poliki-poliki euskeraz irakurtzeari gustua hartzen ari naizela.

Horregatik, zerbaiti buruz idazteko eskatu didatenean, nere lehenengo hitzak pertsona hauei zera esateko dira: idatzi, bete mundu hau zuen fantasiarekin, imaginazioarekin eta, baita ere, egunero pasatzen diren gauzak esaten. Batzuetan tristeak edo txarrak badira ere, nerretzat behintzat askoz gehiago izan dira goxoak eta aberasgarriak. Eskerrik asko.

Ana Igartua

*Eusko Jaurlaritzako
Kultura Sailak, Foru
Aldundiak eta
Elgoibarko Udalak
diruz lagundutako
aldizkaria*





GALDERAK

Mendizale batek honako galdera hau lutzatu digu:

“Zer egiten ari dira Karakateko antena inguruan?”

Plaentxiko Udalarekin jarri gara harremanetan (lurak Soraluzeako dira) eta proiektu berri bat egiten ari direla esan digute. “Centro de Comunicaciones Karakate” izeneko proiektua. Lehengo antena kendu egingo dute eta 70 metroko (lehengoaren doblea) berria jarriko dute. Oiz mendikoaren ordezkoa izango da, batak kale eginez gero bestea martxan jartzeko.



TXALOAK

Ikastolako 3. mailako bi neskatok, hil honen 6an Osasunaren Eguna antolatzen jardun zuten guztien lana txalotu nahi dute. Beraien txaloa Udalarari, ikastetxeetako irakasleei eta Osasunkumeko kide guztiei luzatu nahi diete benetan oso ondo pasa zutelako. Zorionak 5. mailako ikasleei ere, paella Argiñanorena bezain ederra atera zitzaielako.



KEXAK

Emakume batek deitu digu Elgoibarko kale eta parkeetan dauden txakur kakak direla eta bere kexa azaltzeko. Txakur jabeek arduraz handiagoa izan dezatela eskatzen die.

ESKUTITZAK

Elgoibarko herriari:

Elgoibarko AEKko talde bat gara eta eskerrak eman nahi dizkiegu KORRIKAn parte hartu zuten guztiei.

Mauxitxa txaranga eskertuz hasiko gara, trikitilariak, bertsolariak, KOKOE, dantzariak, abesbatza, txalapartariak baita ekonomikoki KORRIKA aurrera ateratzen lagundu dutenak eta KORRIKAN korrika eginez parte hartu duten guztiak ere.

Hurrengoan ere euskara bultzatzeko KORRIKA egiten bada zuen kolaborazioa espero dugu, aurre bezala.

Besterik gabe, har ezazue gure agurrik beroena.

AEKko 6. urratsa

2. telegrama, zalantzak eta agur bero bat

Euskaldun bat atxilotua. STOP. Hiru, lau, bost egun. STOP. Beste hainbat atxiloteta. STOP. Auzitegi Nazionala. STOP. Kartzela. STOP. Atxilotuak hain leloak al dira beraien burua eta beraien lagunena salatzen? Nola sinatzen dute beren autoinkulpazioa? Pin edo zurito bat eskuratzeagatik komisaldegietan bere burua saltzen al dute? TORTURA. Hitz latza. Non zaudete demokratak, Arzalluz, Atutxa, EGI, Calleja eta abar?

Elgoibartar gazte bat atxilotua. STOP. Txartelak atxilotetak salatzen. STOP. Ertzainak kendu. STOP. Prentsaurrekoa. STOP. Diario Vascon manipulazioa. STOP. Gezurra nagusi. STOP. Udaltzainen oharra. STOP. Diario Vasco, ETB, UDALTZAINA errepresioaren laguntzaile? STOP. HBren erantzuna kartel bidez. STOP. Berriro Ertzaintzak kendu. STOP. Non dago adierazpen askatasuna? Edozein idea defenda dezakezu demokrazian? GEZURRA, HIPOKRITAK.

Kaixo Miguel.


Zer moduz? Hor suposatzen zaitut, Aitaren etxean, Basajaunarekin ibilaldiak eginez, gure gudariekin poteoan, zure seme Karmelo eta alaba alboan dituzularik. Mezu bat bidali nahi dizut: Esan gure arbasoei, gure gudariei, Telesforo, Txorta, Eli Gallastegi, Argalari, beno denei, zuen exenplua barneratu dugula, nahiz eta bidea oztopoz beterik egon, bakoitzak ahal duen neurrian, INDEPENDENTZIAREN bidean, Guada alboan dugularik, makurtu gabe, etsi gabe segiko dugula. Ez zaitugu gehiago ikusiko, ez manifa, enkartelada ezta aurtengo Aberri Egunean ere baina, zaude ziur gure bihotzean egongo zarela. Agur eta ESKERRIKASKO.

Nahiz eta hemendik urrundu, Miguel, gurekin zaude, zu Aitaren etxean zaudelarikan, gudariekin batera. Preso guztiak askatu eta independentzia lortu.

Guadak, Mikelek eta zure lagunak agurtzen zaitugu.

Kurutz Castrillejo

HARRIGORRIGOIKO ERROTABERRITARRAK



Aste honetako erretratua **Kontxita Armendiak** lagatakoa da. Aste santua pasa berria denez, aproposa iruditu zaigu 1970. urtearen bueltan Ostegun Santuan egindako prozesioko erretratua argitaratzea.

Kontxitik esan digunez ostegunean eta ostiralean izaten zen prozesioa. Parrokian hasi, Maalaraino joan eta Parrokiara buelta berriz ere. Jendetza, berriz, izugarria izaten omen zen, baserritar guztiak ere kalera etortzen zirelarik.

Kontxitaren esanen arabera, ohitura hau galdu zela izango dira hamabost bat urte eta arrazoi printzipala trafiko arazoak izan zirela aipatu digu.

Ikus dezagun zeintzuk diren erretratuan azaltzen direnak:

Aurrean ezkerrean **Juanito Armendia** eta eskuman **Alberto Ezenarro** "Kakume" (†). Atzean ezkerrean **Jose Jauregi** eta eskuman **Antonio Unzueta**.

Begira daudenen artean honako hauek ikusi ditugu: **Teodoro Badiola**, "El madrileño" (†) eta **Abdon Gabilondo** (†). Erretratua Plazako frontoi parean aterata dago, Errosario kaletik Udaletxerako bidean.



okindegia eta gozotegia

San Frantzisko, 4
Tel. 74 07 35
ELGOIBAR

KEMEN

Belardenda

MEDIKU NATURISTA-AKUPUNTURA-PISUAREN
ZAINKETARAKO TERAPIA-MASAJEA ETA
REFLEXOTERAPIA

San Bartolome 25. Tel: 74 40 31

TXURI BELTZ

Taberna

San Frantzisko 38

Baserritarren belaunaldi berria

Anselmo Salazar “Moli”, Arantxa Berasaluze eta honen ama, San Migel auzoko Zeleta baserrian bizi dira. Bizimodua 5.000 metro lur zabaleran eta beste horrenbesteko azalera hartzen duten 12 negutegitan lantzen duten produktuen salmentatik ateratzen dute. Anselmoren familia ez da bertatik bizi den bakarra; herriko mutiko batek, Manolok, Zeletan egiten du lan eta haren bizimodua ere bihurtu da. Nekazal esplotazio erdi-industrialaren adierazgarri dira, Anselmok dion bezala, “nezakazaritzaren mundu tradizionalan, hurrengo pausua”.



■ ■ Arantza, honen ama, Anselmo eta langile bat bizi dira Zeletako negutegietatik.

Badira dagoeneko 17 urte, Arantxa enpresariales ikasten zegoen garaian, Anselmok Sig-mako lana laga, eta ortuko gauzekin esperimintatzen hasi zirela. “Zoroaldi batek harrapatuta bezala, abentura modura haseran”, nekazaritza biologikoarekin hasi zen lehen esperientzia harek, nekazaritza konbentzionalaren bidetik esplotazio serio bat izaten bukatu du. Ortuari errentagarritasuna ateratzeko asmoarekin 15 metroko azalera negutegiekin hasi ziren, 300 metro ondoren, 800 metro gero, eta horrela gaurrengungo 5.000 metrora iritsi

arte. Hori negutegiei dagokienean. Udara alde-ra, berriz, beste 5.000 metro lur lantzen dituzte, aire librean. Eguraldien gorabeherak behartuta negutegien produkzioari esker hornitzen ditu Elgoibarren eta Donostia aldean dituen bezeroak. “Urtero galtzen dugu eguraldiatik produkzioaren zati bat, gutxienez 1.000 edo 2.000 kilo tomate eta inoiz 3.000 kilo ere bai”.

Lekak, Gernikako piperra, tomatea eta letxuga dira gehien produzitzen diren produktuak

Denetarik hazten da Zeletako lurretan: uda partean tomatea, lekak, Gernikako piperra; kantidad txikiagoetan berriz, babarruna, berakatza, kalabaza, kalabazina, berenjena, pepinoa eta oraintsu berakatz freskoa; urte osoan zehar letxuga noski, eta neguan porruak, aza eta azalorea. Barazki adierazgarrienen produkzioa urtean: 10.000 dozena letxuga, 20 bat tona tomate, Gernikako piperra 10.000 dozena eta lekak 5 tona. Honez gain, reineta sagarra ematen duten 80 arbola duela urte batzuek landatu zituzten eta aurrera begira gehiago landatu nahiko lukete.

ANSELMO SALAZAR:

“Kontrolik zorrotzena neuk ezartzen dudana da”

- Euskal Baserri izendapena duzu.

- Bai, produktu batek kalitate handia ematen didanean Eusko Jaur-laritzaren Euskal Baserri moduan saltzen dut, neuk ontziratua beti. Kontrol oso zorrotzak pasa behar izaten dira izendapen hori lortzeko baina zorrotzena, nik neuk jarritako kontrola izaten da. Egunero Zeletatik 500 letxuga ateratzen badira, guztiak gainbegiratu egiten ditut banan banan. Oraindik urtebete eskas daramagu gai honekin eta Gipuzkoan 16 baserri bakarrik gaude.

-Kanpotik ere etorri zaizkizu.

- Bai, bezeroak Elgoibarren eta Donostian izateaz gain, Eusko jaur-laritzatik gugana bidaltzen dituzte gure lan modua ezagutzera. Oiartzuneko Prycatik ere deitu izan digute baina gure produkzioarekin ezin dugu erantzunik eman. Produktua falta zaigu.

- Oinarria, kalitatea eta prezioa-

ren arteko oreka al da?

- Produktuen prezioak errespetatu egin dizkigute beti, Donostialdean batez ere, beti ere maiorista bezala. Hemen Mercabilbaok eragiten ditu prezioetan gorabeherak. Letxuga esaterako, 50 pta baino garestiago ez dugu saltzen.

- Negutegi muntaia guztia, ureztatze sistema eta orokorrean ia dena zure eskuz egina duzu.

- Bai, dena esan daiteke. Sigman lan egin izanak organizazio sistema bat eratzen lagundu dit, dudarik ez dago. Autodidakta izan naiz, asko irakurri dut eta ahal izan dudana feria guztietara joan izan naiz. Asmakin-zun bat ere egin nuen semilleroko haziei jartzen zaien lur zati karra-tuak egiteko, erdaraz zepelloiak. Saldu ere, mordoia saldu ziren bere garaian eta noski, patentatu egin genuen. Gaurregun, berriz, sistema sofistikatuagoak daude.

- Jaterakoan barazkiak, nola gustatzen zaizkizu? - Letxuga, oso



normal, entsaladan esaterako. Hori bai, negutegi bakoitzeko produktu bakoitza dastatzea gustatzen zait. Hala ere ez naiz oso belarjalea ezta okelazalea ere, nahiko arraro jaten dut.

- Zer eman dizu baserriak?

- Lurrak bizia ematen didala esaten dut nik. Baserri munduarekin asko identifikatzen naiz.

- Bertoko produktua kontsumitzeko bi arrazoi: - Bat, produktu freskua dela eta bi, zaporeagatik. Dena den, lotuak daude biak.



■ ■ 5000 metro negutegi dute eta udan beste 5000 metro ortu.

Biologiokoaren eragina ezin ahazturik, abereen zimaurrarekin bakarrik hazitako produktuak ere badituzte, “nekazaritza naturala” deitzen dio Anselmok. Dena den, produkzio handietan ongari kimikoak erabiltzen dituzte, “baina beti ere mugatuta, gehiegikerian erortzea nire buruari harrika egitea bezala izango litzatekeelako”. Negutegiak beti daude irekita, une oro, ahal den neurrian produktuak behar duen ziklo naturala errespetatuz.

Ontziraketa eta salmenta

Produktuen ontziraketa eta manipulazioa bertan egiten dute, Anselmok berak muntatutako gela

moduko batean. Askotan herriko jendea bertaraino joaten zaio letxugak, piperrak edo beste edozer erostera. Salmenta mota honi begira, jendearen arretarako mostradore bat eraiki du Anselmok, nekazal kutsua gordez. Euskal Baserri izenarekin ezezik, Zeleta izenpean ere ontziratzen ditu produktuak. “Bezeroaren araberaren izaten da, batzuek ontziratua erostea nahiago dute, ostegunetako azokan berriz, ontziratuta gabe saldu behar da; jendeak eskuz ikutu nahi izaten du produktua”. Herrian zenbait tabernetan kontsumitzen eta zortzi bat denda-tan saltzen dira Zeletako barazkiak.

ASTE HONETAN

Eros ditzagun gure baseritarren produktuak!!!

**JATETXEA
ETA
TABERNA**
P. Muguruza 8. ☎ 74 08 21

XABIER
ILEAPAINDEGIA
*Eskatu
eguna eta ordua*
San Bartolome 13, Tel. 74 19 97

URKIOA
San Frantzisko 8 ☎ 74 02 80

Kkfg
ILEAPAINDEGIA
☎ 74 00 69
San Frantzisko, 40 3 - B

Nahiz eta gaur egun Donostian bizi naizen, elgoibartarra naiz eta baita bertara sarritan itzuli ere. Ondo gogoratzen ditut nere gaztaroko urteak, eta garai hartako elikadura mota ere bai. Orduan, garaian garai-ko produktuak izaten ziren eskuko. Neguan azak, porruak,...; udaberrian baba beltzak, ilarrak,...; udan tomateak, lekak,... Gauza da, bertoko produktu freskuak jaten genituela gure osasunaren mesederako eta bertoko baseritarren irabazirako, modu honetan, guztion mesederako zen ziklo bat isten zelarik.

Egun, esan dizuet Donostian bizi naizela, eta etxetik kanpo lan egiten dugunontzat produktu freskoak erostea ez da hain erraza. Azoketara joateko beta handirik ez, eta asteburuetan ezik, kanpotik datozen produktuen beharrea gaude (Valentzia, Almeria... Chile ez denean). Hauek dira sarritan dendetan salgai dauden barazkien sorburuak.

Ezin ukatu hemengo eta kanpo-

tik datozen produktuen gustua edo zaporea eta kalitatea ez dela berdina. Nola liteke bada, elikadura balio berdina edukitzea goizean baratzean hartu eta eguerdian mahai gainean prest dagoen tomateak, eta duela astebete hartu, hozkailuetan egon ondoren, gure eskuetara iristen denak?

Bukatzeko ezin aldamenera utzi, bertoko produktuak erostek gure herritarrentzat duen onura. Hau da, Euskal Herriko ekonomia altxatzeko, ahal dugun bakoitzean, eta gure esku dagoena da euskal produktuak kontsumitzea.



ARRATE BERSALUZE

Cordon, Vilarchao, c.b.
DEKORAZIOA
MOKETAK, KORTXO BARNIZATUA, PVC ETA PARETAK,
SINTASOLA, ZOLU INDUSTRIALAK, GORTINA BERTIKALAK,
GOTELE ERROTULAZIOA, PINTURA OROKORRA.
San Roke , 7 behea. Tel.74 28 74 - 74 05 70

**CRISTALERIA
ELGOIBARRESA C. B.**
*Bidriera artistikoak
Obra komertzialak*
Urasandi 12 behea
Tel-Fax: 74 04 89

MEKANOSA
Errosario 30
tel: 74 02 84 Elgoibar

- ★ IDAZMAKINEN SALMENTA
ETA KONPONKETA
- ★ MULTIKOPISTAK
- ★ FOTOKOPIADORAK
- ★ PLANOEN BIRREGILEAK
- ★ ERLOJU INDUSTRIALAK
- ★ MARRAZKETA MATERIALA
- ★ INFORMATIKA
- ★ FAX

ARAZOAK ZURE AHOTSAREKIN?
Hitzegiteko: landu zure ahotsa!
Polipoek, noduloek, ahotsaren erabilera okerrak, etab...
ERAGINDAKO RONKERAK
ANGELA ZABALETA AIZPITARTE
DEITU ☎ 74 15 56

Ortuko produktuak, bertokoak erosten al dituzu?



AMPARO CRUZ

67 urte, etxeandrea

Bai, baserritarrei erosten dizkiet bainak; kalabaza eta arraultzak ere bai. Produktu freskoagoa eta naturalagoa dela uste dut.



AURORA RODRIGUEZ

42 urte, etxeandrea

Bai, gehiago gustatzen zait bertokoa eta erosten ez badut oso garestia dagoelako izaten da. Halere, kalitateari begiratzen diot gehienbat.



JUANITA UNANUE

68 urte, jubilatua

Neretzako hemengua hobia da, nik Zeletakua erosten dot beti. Freskuaua da eta gustuan ere aldia dao, tomatian batez ere.



MARIA REBOLLO

43 urte, etxeandrea

Ona eta freskoa bada ez diot begiratzen hemengoa den ala kanpokoa. Gaur egun, egia esan, prezioari ere begiratu behar izaten zaio.



JOSE PEREZ CORTES

68 urte, jubilatua


Bertoko produktua erosten dut. Tomatean, adibidez, ikaragarria da ezberdintasuna, hemengoak askoz zapore gehiago eta hobia dauka.



SABIN OREGI

61 urte, jubilatua

Nik neuk hartzen dot eta hobia izango ez da ba? Zuritik beltzera bezela. Etxe onduan hazteixut barazkixak eta artua eta garixakin oiluak.



**ZURE SEMEAK
ETORKIZUN HANDI
BAT DAUKA
GUK ASEGURATU
EGINGO DIZUGU.**

Pedro Muguruza 4 behea. ELGOIBAR. ☎ 74 26 99

■ Liburutegiko I. Idazlan eta Marrazki lehiaketa

Udal Liburutegiak I. Idazlan eta Marrazki lehiaketa antolatu du hil honen 23an Liburuaren Eguna ospatzen dela eta. Marrazki lehiaketan OHOKo 1. eta 4. maila arteko ikasleek har dezakete parte eta idazlan lehiaketan, berriz, 5. mailatik gorakoek. Lanak orrialde batekoak izango dira gehienez eta hil honen 28an beranduenez aurkeztu beharko dira Liburutegian. Lehiaketa bakoitzeko irabazleak liburu sorta eta walkman-a jasoko ditu eta bigarrenak liburu sorta. Hala ere, parte hartzen duen guztiak opari bat jasoko du eta gero, denen lanekin erakusketa egingo da. Irabazleak maiatzaren 5eko BARRENen agertuko dira.

■ Kontzertu pedagogikoak eta soinu kontzertua

Inazio Bereziartua Musikeskolaren X. urteurrenaren ospakizunen artean, Donostiako Udal Txistulari Taldeak kontzertu pedagogikoak eskainiko ditu hil honen 25ean, astearte, goizeko 9,30etan, 11etan eta arratsaldeko 3etan. OHOKo ikasleei zuzenduak daude saioak. Ildo beretik, hilaren 27an, osteguna, arratsaldeko 8etan Iñigo Aizpioleta 17 urteko gazte irundarrak soinu kontzertua eskainiko du. Aizpioleta Gipuzkoako txapeldun izan da hiru bider eta iaz Munduko Kopan bigarren saria irabazi zuen. Herriko Antzokian zortzi obra joko ditu. Bi kontzertuak Herriko Antzokian izango dira eta sarrera doan.

■ Bilbora txangoa Filatelia Elkartearekin

Elgoibarko Filatelia Elkarteak Eibarko Arrate elkartearekin batera, Bilboko Plaza Nuevan igandero izaten den filatelia azoka ikusteko txangoa antolatu du igande honetan, hilak 23. Irteera Maalatik izango da goizeko 10etan eta itzulera eguerdiko 2etarako egiteko asmoa dute. Bazkide guztiak doan joateko aukera izango dute, aldeztu aurretik izena emanez gero.

Prebentzio astea antolatu du Errotatxok hilaren 24tik aurrera

Errotatxok hil honen 24tik 28ra bitartean prebentzio astea ospatuko du. Urtero bezala drogomenpekotasunen prebentziorako hainbat ekitaldi antolatu ditu. Hilaren 25ean, astearte, mahaingurua izango da Kultur Etxean arratsaldeko 7,30etan. “Drogomenpekotasunak: lehen eta gero” izenburupean Proyecto Hombre, El Patriarca, Remar eta Alcoholicos Anonimos Elkarteetako kideek hitz egingo dute. Hilaren 27an, osteguna, Pepe Reik, Egin egunkariko kazetari ikerleak narkotrafikoa eta korrupzioari buruz jardungo du leku eta ordu berean. Ostiralean Zarautz-

ko *Algara* taldearen eskutik “Pasa la coca, abuelo” izeneko antzezlanak ikusteko aukera izango da Herriko Antzokian gaueko 22,15etan. Azkenik, prebentzio asteari bukaera emateko, prebentzio eguna ospatuko du Errotatxok 37 kolektiborekin batera. Maiatzaren 6an, larunbata, kolektibo bakoitzak stand bat jarriko du Plaza Handian goiz osoan zehar. Ohienez, trafikoaren aurka eta prebentzioaren alde manifestazioa burutuko da. Gaueko 11etan, Maalan, Kokoteraino taldearen kontzertuak eta Dakintaren txisteen jardunak eman go diote amaiera prebentzio asteari.

Osasunaren jaia ospatu zuten OHOKo 300 haurrek Mintxetan



Hil honen 7an, Elgoibarko Udal-letxeko Prebentzio Zerbitzuak eta Ikastolak, Herri Eskolak eta Pilar ikastetxeak antolatuta, OHOKo 3., 4. eta 5. mailako 300 haurrek Osasunaren Jaia ospatu zuten Osasunkume programaren “Bizitzaren Abentura” deritzonaren baitan. Goizeko 10etan Plaza Handian bildu ziren haur guztiak. Ondoren, 3. eta 4. mailakoek Elgoibarko Izarrako begiraleen ardurapean jokuak eta kirolak egiteko aukera izan zuten Mintxetan, eta nagu-

sienek eguerdiko otorduko paella prestatu zuten herriko gastronomi elkarte ezberdinetan. Arratsaldean *Edex* antzerki taldearen eskutik antzerki lan bat ikusi zuten Ikastolan eta Osasunkume programaren mas-kota den katua ere ezagutzeko aukera izan zuten, besteak beste.

Osasunkume programak drogen prebentzioa du helburutzat, haurrei txikitatik ohitura osasungarriak erakutsiaz. Programa honek Eusko Jaurlaritzaren Ongizate Sailaren laguntza dauka.

Ales Arrieta da EAko zerrendaburua



Elgoibarko Eusko Alkartasunak udal hauteskundeetarako izen zerrendaren berri eman zuen. Lehen postuan Ales Arrieta Jauregi aurkeztu du alderdiak independente modura. Bigarren, orain arte zinegotzia izan den Fermin Senosiain Eizagirre eta hirugarren, independente modura hau ere, Itziar Goñi Gabilondo. Izan ere, EAren aurtengo asmoa hiru zinegotzi lortzea da.

Ales Arrietak programaren edukina funtsezko lau puntutan laburtu zuen: lehenik, gestioaren transparentzia, egiten diren gauza

guztien berri emanez. Bigarrenik, langabeziari “irtenbide orijinalagoak” topatzen saiatu, hirugarrenik Udalaren defizita txikitzeko gastuak murriztu eta azkenik, euskararen normalizaziorako “pauku firmak eman, udal ordenantzen jarraipen zehatza eginez eta euskara eta kulturaren arteko elkarlana estutuz”. Fermin Senosiainek azken legegaldiko balorazioa eginez, “lehentasunak ezarri” eta Udalaren zorrari aurre egiteko “kultura bezalako gaietan kontsentsu batera heletzea” funtsezkoa dela aipatu zuen.

Morkaiko Mendizale Elkarteak antolatuta, argazkiko elgoibartar talde honek Aste Santuko oporrrak Frantziako Gavarnie mendiko herrixkan igaro ditu. Gehienak mendian eta eskalatzen igaro dituzte ostegunetik astelehenera bitarteko opor egunak eta aipatzeko modukorik ere egin omen dute: 16 elgoibartar Vignemale hirumilakora igotzeko asmotan atera ziren aterpetxetik eta guzti-guztiek lortu omen zuten gailurra, tartean ere badira Astazoua mendieta-ko swan korredoretik igo zirenak.



■ 1995eko aurrekontua 1.108.500 ptakoa da

Apirilaren 6an izan zen plenoan 1995. urteko aurrekontua onartu zen, aspaldian izan dugun aurrekonturik murriztena, 1.108.500 pezetakoa alegia. Aurrekontua zela eta HBk 12 emendakin aurkeztu zituen bat bera ere onartu ez zelarik: Mintxeta inguruko terenoak Udaletxeak eros ditzala aisialdirako guneak jarri asmoz, etxebizitza sozialak egiteko diru partida, gazteekin hitzegiteko mahai bat sortzeko dirua, hormetako pintadak kentzeko diru partidarik ez egotea, Pilar ikastetxearen dirulaguntza kentzea bai eta uraren Kontsorzioarena ere, AEKri dirulaguntza ematea, Zazpikiri ere, Aita Agirre eskola zaharrak kultur etxe bezala egokitzea eta Herriko Antzokiaren gestioa Ongarriren esku uztea. Horieta bakar batek izan zuen EAren aldeko botua, Udaletxean euskara trebatzaile baten figura sortzearena, hain zuzen ere. PSEk emendakin bat aurkeztu zuen aurrekontuarekin ados egon arren, dirua banatzeko erarekin ez zegoela konfome esanaz. Aurrekontuaz gain, aho batez onartu zen Kutzarekin sinatuko den mailegu hitzarmena, 125 miloiko mailegua. Era berean, San Lazaro egoitzari 62.642.000 ptako dirulaguntza ematea onartu zen. Azken plenoan idazkari berriaren izendapena egin zen. 50 urtetan Jose Mari Galdosek bete duen kargua honen semea den Iñaki Galdosen esku geratuko da aurrerantzean.

■ Hitzaldi informatiboa Mekanikan

Herriko Institutuak datorren maiatzaren 2an, asteartea, arratsaldeko 7etatik aurrera Mekanikako aretoan, datorren ikasturtean eta hurrengoetan Herriko Institutuak egingo duen hezkuntz-eskaintzaren berri emango du. Insteresatuak dauden guztiei joateko gonbidapena helerazi nahi die Institutuak.

Alex Young:

"Ameriketara lana, arrakasta eta anbizioa oso garrantzitsuak dira"

24 urte dituen gazte hau amerikarra da, Washington hirikoa, hain zuzen. Orain urte batzuk neska elgoibartar bat ezagutu zuen, maitemindu eta urtarilean, ikasketak amaitu eta gero, Euskal herrira etortzea pentsatu zuen, bidaiatu eta abentura bizi

asmoz. Gaur egun Mendaron bizi da eta mementuz lanik ez duen arren, bere asmoa ingelesa irakastea da. Irailera arte dauka bisadoa, gero Estatu Batuetara itzuliko da. Bitartean, Kensington akademian gaztelera ikasten ari da.

- Etorri aurretik ezagutzen al zenuen Euskal Herria?

- Apenas. Lagun baten gurasoak euskaldunak dira, Ameriketara emigratu zutenak, eta zertxobait entzun izan nuen noizbait baina ezer gutxi. Abenduan, finantza ikasketak amaitu eta Elgoibarrera etortzea erabaki nuen, neskalagunarekin egon, bere familia ezagutu, herri ezberdin bat ezagutu eta esperientzia berriak bizi asmoz.

- Ondo moldatzen zara gaztekeraz.

- Bueno. Egia esan lehendik zerbait banekien batxilergoan gaztelera ematen baitgenuen. Halere, oraindik asko ikasi beharra daukat. Gainera jendea ezagutu nahi dut eta komunikatzeko beharrezkoa da hizkuntza ezagutzea.

- Hiri haundi batean bizitzetik Mendarora. Zer iruditu zaizu?

- Ezberdina da oso. Hiri haundi batean askoz jende gehiago dago, mugimendua, zarata, bizitza gehiago... Herri txikiak lasaiagoak dira, badute beren xarma. Gustura nago hemen. Euskal Herria asko gustatu zait, asko.

- Batez ere?



" Euskal Herriko kostaldean itsasoak eta mendiak sortzen duten paisaia zoragarria da"

- Jendea oso atsegina da eta horrez gain, paisaia zoragarria iruditu zait, kostaldean itsasoa eta mendia batera egoteak sortzen duen ikuskizuna oso ederra da. Janari aldetik ere gauza berri asko probatu ditut: odolostea, txerri hankak... Ameriketara mundu osoko sukaldaritza daukagu baina geurea den berezirik ez.

- Askok bidaiatu izan al duzu?

- Europan zehar asko ibili izan naiz, Alemanian, Frantzia, Suizan, Polonian, Txekoslovakian... Europan kultura ezberdinak ezagutzeko aukera dago kilometro oso gutxi eginda.

Ameriketara, aldiz, kultura ezberdinen kontrasteak emateko asko ibili behar duzu. Europan tren aldetik oso ondo dago azpiegitura, bidaiatzea nahiko merkea da nahiz eta janaria han baino garestiagoa izan.

- Oso ezberdina al da bizitza Ameriketara?

- Bai. Lana aldatu eta aukera ezberdinak proba ditzakezu. Horrela, errazagoa da benetan bizitzan zer egin nahi duzun jakitea. Ni 14 urtekin hasi nintzen lanean eta ikasketak egunez egiten nituen bitartean, gauz lanean aritzen nintzen. Kamareroa izan naiz, bidaiak egiteko zerbitzuak

eskaintzen dituen ofizina batean lan egin izan dut...

- Zer da garrantzitsuena amerikarrentzat?

- Lana oso garrantzitsua da, ez diruagatik bakarrik, posizio sozial bat izateagatik ere bai. Anbizioa, konpetentzia, lan munduan gora egitea, arrakasta izatea oso garrantzitsuak dira. Lana eta familia dira zoriontasuna lortzeko punturik garrantzitsuenak.

- Halere, familiaren lotura hemen baino txikiagoa da, ez?

- Bai, lehenago independentizatzeko gara. Jendea nahiko gazte ateratzen da etxetik eta ez da hemen beste denbora ematen familiarekin. Han ez dugu familia osoak elkarrekin afaltzen eta ez gara bazkal ostean hemen bezala berrikeretan egoten mahai inguruan.

- Zeren falta sentitzen duzu?

- Zenbait kirol, familia, lagunak... Baina hemen gustura nago eta ez dut gehiegi pentsatzen. Detale txikiak dira, egunero gertatzen direnak.

- Ba al dakizu zerbait euskaraz?

- Zerbait: egunon, gabon pasa, arratsaldeon... Nahiko nuke ikastea baina denbora behar da.

Zcj ct tcm BERRI

3. ADINARI ZUZENDUTAKO 11. GEHIGARRIA



Apirilean zehar hainbat txapelketa burutu dira Zaharren Biltokian. Tute txapelketa, Punto, Briska, Domino eta Mus txapelketak jokatu dira eta guzti horietan 28 bikotek hartu dute parte. Argazkian ikus ditzakegunak Amadora Martinez eta Luzia Martinez, Briska txapelketako irabazleak, eta Antonio Alvarez eta Eulogio Perez, Mus txapelketako irabazleak dira. Hona hemen gainontzeko jokuetako irabazleen izen abizenak: Antonio Alvarez eta Gabriel Ruiz Tute txapelketan, Victoria Arrieta eta Dolores Berezibar Puntoan eta Pedro Salinas eta Jose Perez Cortes Dominoan. Guzti hauek erloju bana jaso dute sari bezala eta Deba Behean ospatuko den txapelketan hartuko dute parte eta hor irabazle ateratzen direnek Gipuzkoa mailako txapelketan. Gipuzkoako Pentsionista eta Jubilatuen Elkarteak antolatzen ditu urtero honako txapelketa hauek eta, ohitura jarraituz, urtez urte partehartzaileen kopuruak gorantza egiten omen du.

MOTZAK

Arantza Irteera

Elgoibarko Zaharren Biltokiak Arantza herrira irteera bat antolatu du. Bidaia egun osokoa izango da maiatzaren 5ean. Irteera goizeko 8,30etan izango da Foruen Enparantzatik abiatuz eta buelta arratsaldeko 9ak inguruan. Izena emateko Zaharren Biltokira joan behar da goizeko 10,30ak eta 12ak bitartean.

Aula 3-ko hitzaldiak Arrasaten

Aula 3 ikastaroen barruan maiatzean zehar hainbat hitzaldi izango dira Arrasaten. Hilaren 2an, 3an, 4an eta 5ean Ingurugiroari buruzko zikloa izango da Elena Oiarbide geologoaren eta Esteban Egilegor biologoaren eskutik. 8an, 9an, 10ean eta 12an Mantenua eta Elikadura garen inguruan arituko da Ana Elbusto nutrizionista eta 15ean, 16an, 17an eta 18an bizitzari osasuna gehitzeari buruz mintzatuko da Estibalitz Andrio medikua.

Aldi baterako egonaldiak

Foru Aldundiak, bakarrik bizi-tzeko gai ez diren edo ezintasunen bat duten zaharrek bizi diren familiek atsedean egunak izan ditzaten, epe jakin baterako egonaldien programa aurkeztu berri du. Zaharrek egotzetan pasako dituzte zenbait egun. Egonaldiak 15 egunekoak izango dira gutxienez eta hila-betekoak gehienez. Izena emateko eta informazio gehiago jasotzeko Ongizate sailera jo.

JOSE MARI GALDOS

"8 alkate ezagutu ditxut 50 urtian Udaletxian lanian"

63 urte ditu eta horietatik 50 urte egin ditu Udaletxean lanean eta bizi ere, bere lehenengo urteak bertan bizi izan zituen, gaur egun artxiboa dagoen tokian etxebizitza baitzegoen. Orain aste batzuk jubilatu zaigu, atzean utzitako hainbat eta hainbat bizipen oroimenean betirako gordeak izango dituelarik. Udaletxeak urrezko insignia oparitu zion, lankideek plaka bat eta BARRENEk, Jose Mari Galdosen oroitzapenak eskuratu nahi izan ditu.

- Jaiotzetik Udaletxean?

- Ez, nere gurasuak Sikutei etxian bizi ziren baina garai hartan emakumia aman etxera jun bihar zan umia itxera; nere ama Bertozo baserrikua zanez han jaio nitzen. Aitxa arotza zan baina krisi epokia zan eta Udaletxian oposiziua urten zian, brigadako jefe izateko. Aitxak atera zaban eta hara jun ginan bizitzera.

- Zergatik?

- Barrenderua, bonberua... Danetik zan gure aitxa eta udaletxian egon bihar izaten zan ahalik eta denbora gehixen, edozer sortzen bazan ere atento. Aguazilan etxia aldamenian zauan, oin juzgaua dauan tokixan.

- Mutiko gaiztoa al zinen?

- Oker samarra bai. Akordatzen naiz behin aguazilak zaplasteko ederra eman ziala, udaletxeko eskailleratan behera dauan baranduan gainian txirristaka bajatzen nitzalako eta behin zeozer apurru nabalako. Halere ez naban eskarmentorik hartu.



- Eta etxe azpian bertan plaza.

- Bai, guri umetan pelotan jolastia gustatzen jakun. Orduan txandia hartu bihar zan frontoia noiz libratuko zain. Baina neri saltakia ere gustatzen jatan asko, atletismua. Elgoibarko kanpeoia atera naban bi bider.

- Alpargetekin gainera, ez?

- Bai, besterik ez zauan eta. Pelotan oinutsik ibiltzen ginan alpargatak ez apurtzeko eta askotan galipotakin eta harrixekin masa moduko bat in eta alpargatan azpitan pegatzen genduan, gogortzeko. Eta emakumiak txankuluakin juten zian tallerera, alpargaten gainian jartzeko eurixa zauanian.

- Noiz hasi zinen Udaletxean lanean?

- Meritorio bezela hasi nitzan, ikasi arte soldataripe ibiltzen zinan lanian. Gero auxiliar, ofizial de segunda eta beranduo sekretarixo bezela aritzen nitzan ez zauanian. Oktubrian ingo dau 50 urte.

- Urte asko eta bizipen asko, ez?

- Ya lo creo! Askok, gehixegi. Esperientzia asko, arazo askori eta diferentiei aurre egin bihar... Hemen ez zauan ordenadorerik, gure epokan burua zan zauan ordena-



dore bakarra eta han gorde bihar zian datu guztiak, izen guztiak. Nik padroia ere eruatzen naban eta jende asko ezagutzen naban, izenak eta baitxa 16 abizen ere. Nere aitxak, berriz, herrixa goitxik behera ezagutzen zaban, berangana jotzen zaban jendiak edozer galdetzera, planorik ez zauan eta Ramon Galdosek dana ezagutzen zabanez... Langiliak ere oin dauan erdixa ginan. Eta ez zauan astegun eta jairik, zapatuan eta domekian ere biharra eukitzen genduan eta oporrak urtian 15 egun inguru eta segidan sekula ere ez.

- Zenbat alkate ezagutu dituzu?

- Zortzi. Julio Mugerza, Jose Rezola, Angel Ajubita, Jaime Arrese, Angel Fernandez de Jauregi, Luis Arrieta, Lucio Beitia eta Jose Inazio Elkoro-iribe.

- Zein izan da hainbeste urtian Udaletxean egin den garrantzitsuena?

- Neretzat Mendarotik Elgoibarrera ura ekartzia eta Mintxeta.

- Eta aurrera begira egin behar dena?

- Protekzio ofizialeko etxebizitzak. Proiektua badago Urruzunon itxeko, aber itxen dan, biharra badago eta.

- Ia bizitza guztia Udaletxean eta orain?

- Oin bizitza trankil hartu eta disfrutau ahal doten gehixen.

Gure epokan burua zan zauan ordenadore bakarra

Bizitza ei da ikasgairik onena

70 urte inguru dituzte elkarrizketatu geihenek. Bizitzan asko ikusi dute eta ikasi ere, seguruena. Urteek aurrera egin ahala atzean utzitako garaien errepasua egiterakoan, zenbait gauza onak izan zirela ikusten dugu ere, beste batzuk hobetoagoak izan zitezkeela, baina, batera edo bestera, ikasi-

takoak asko direla ohartzen gara. Behin norbaitek esan zuen zahartza-roa munduaren memoria dela eta nork ez luke sinatuko 20 urte izatea baina 60/70 urterekin izaten den esperien-tzia eta jakituriarekin. Zer da bizitzak irakatsi dizun garrantzitsuena? Galdera horren bueltan, hara jaso ditugun erantzunak.



A
T
Z
E
L
O
Z

70 urte

Osorik gazte ezkondu nintzen, 15 urte nituela. Sei seme alaba izan nituen eta orain 17 urte alargundu nintzen, Jainkoak eraman zidan senarra albotik. Bizitzak eman didan gauzarik garrantzitsuena familia izan da niretzat, oso zoriontsua izan naiz. Ez nuke ezer ere aldatuko.

Zer da bizitzak irakatsi dizun garrantzitsuena



M
A
R
C
E
L
I
N
O
M
I
G
U
E
Z

66 urte

Bizitza etengabeko ikasgai bat da, sekula amaitzen ez den ikasgaia. Egunero gauza berriak ikusten ditugu eta horiek ikusiz baita ikasi ere. Halere, bat aipatzekotan, familia aipatuko nuke. Familia sortu eta aurrera ateratzeko gai izan gara emaztea eta biok eta harro nago.



I
S
I
D
O
R
O

73 urte


Baserrikua naiz eta gaztetan ikasten txarra nitzan ta baserrixan lana zauanez estudixuak laga nitxun. Gurian beti zauan biharra, 14 anai-arreba ginan eta. Gero Sigman, pulimentuan... Jai eta aste lana beti, horixe erakutsi dia bizitzak neri, lana gogor eitzen, eta sekula ezer sobran euki gabe. Hala tokau jata.



L
A
U
R
E
T
Z
I
C
A
S
A
D
O

70 urte

Garai txarrak bizi behar izan ditugu eta egoera bakoitzari aurre egiten jakin izan dut. Gauzak etorri ahala hartu eta horien arabera moldatzen jakin dut, garai bakoitzera egokituz. Bidean geratu zaidana, barruan daramadan arantza bakarria ikastea izan da, batez ere. euskara ikastea. Nire garaian ez zegoen gaur egun dagoen aukerarik.



J
A
U
R
E
G
I

72 urte

Bizitzak asko erakusten du eta neretzat garrantzitsuena urteetan zehar jendearen aldetik jaso izan dudana solidartatea izan da. Nere ustez asko galdu da gaur egun, jendea materialistagoa bihurtu da, gaur egun "oihaneko legea" nagusitzen da.

Automedikazioaren arriskuak

Urte askotik ona, oso arrunta da etxeetan txokoren bat edo kajoiren bat izatea era guztieta-ko medikamentuz betea. Honela, egunez egun eta urtez urte, farmako kopuru handi bat pilatzen da eta askotan ahaztu egiten zaigu zertarako balio duten eta betetzen ez duten funtzioa izango balute bezala erabiltzen ditugu, erabili behar ez diren kasuetan, hain zuzen. Ez da batere arraroa, minen bat sendatzeko erremedio bat bilatu nahi izatea "almazen txiki" horretan.

Automedikazioa deitzen zaio, norberak nahi duenean, bere iritzi propioaren arabera medikamentu bat edo beste bat hartzea erabakitzeari, bai eta medikua ez den beste norbaitek (farmazia, familia, lagunak...) aholkatu digun medizina hartzeari ere.

Guzti honek ondorioak dakartza, askotan arriskuak diren ondorioak. Gerta daiteke gaisotasunen bat daukagula uste izatea eta horren aurkako medikamentuak hartzea nahiz eta benetan beste gaisotasun bat izan. Bestalde, etxe guztietan dauden zenbait medikamentu pertsona guztiek har ditzakete eta hauek "hainbat medikamenturen" nahasketak izan ohi dira, pilula edo jarabe berdinean bilduak, eta askotan ez dugu jakiten zer den zehazki hartzen ari garena.

Jendeak ez ditu ezagutzen medikamentuen artean dauden inkompatibilitateak eta zein eratan eragin dezaketen



ESTHER ANTERO
MEDIKUA

gaisotasun kronikoetan (bihotz arazoak, birrikak, giltzurrunak...) gaiso hauen egoera okerragotu egiten delarik.

Hirugarrenik, (eta honek berebiziko garrantzia dauka medikamentua beste pertsona bati ematen zaionean, askotan familiakoa ez dena) erreakzio alergikoak eman daitezke ez baita arrunta farmakoa ematen zaion pertsonari medikazio bati edo beste bati alergia dion galdetzea.

Antibiotikoen kasuan (beharbada askatasun handienarekin hartzen dugun farmakoa) gerta daiteke germenek erresistentzia sortu eta antibiotikoen aurrean "sendotzea". Honen ondorioz, gero eta "arma" gutxiago geratzen zaizkigu gaisotasunei aurre egiteko.

Esan dugun guztiaren ondorioz, bakoitzak berari dagokion medikuarengana joatea aholkatuko nuke edo, bestela, Elgoibarko larrialdi kasuetara arratsaldeko 5etik aurrera, era honetara bakoitzak komeni zaion tratamendua jaso dezan. Medikua esango dizu zein den gaitza, zein den horren aurkako tratamendurik egokiena bai eta zeintzu diren berriz kontsultara joatea eskatzen duten sintomak ere.

(Erredakzioan itzulia)



JESUSA KORTABERRIA
60 urte

FLANA BIZKOTXOAREKIN

OSAGAIAK :

12 arraultza, azukria, litro t'erdi esne, azukria, irina, nata montada eta marrubiak.

PRESTAKETA:

6 arraultza, azukria eta litro t'erdi esne nahastu eta "baño maria"n jartzen dira, flana egiteko. Gero, beste sei arraultzen goringoa, bederatzikutxarakada azukrekin eta beste horrenbeste irinekin nahasten da. Zuringoak "a punto de nieve" ipini eta dana nahastu eta gero flanan gainera botatzen da eta dana laban sartu. Hutsa denboran itxen da, flaan epela egoten da eta belaxe itxen da. Prest dauanian frigorifikuan sartu eta hurrengo egunian nata montada botatzen jako gainera eta adornatzeko mailukixak ipintzen jakoz gainian. Hotzian jateko tartia da, ederra benetan.

Kontxi Arano*"Arauri" lurridendakoa*

- **Zein kolonia jarriko zenuke gau erromantiko baterako?** ▶ Perfumatu bat, Bizanze, Rochas-ena adibidez.
- **Ezpain gorriak seduktoreagoak al dira naturalak baino?**
 - ▶ Bai, gorri gorriak.
- **Haurtzaroa gogorarazten dizun usairik ba al dago?**
 - ▶ Itsasoarena beharbada.
- **Zerk behar du makilaia kapa eder bat?**
 - ▶ Gauza askok, gizarteak berak kapa asko beharko litzuke.
- **Pertsonak begietatik sartzen al zaizkizu?** ▶ Lehenegotik bai, gero tratuaeren arabera izaerari ematen diot garrantzia.
- **Neguan solarium-a ala krema autobrontzeadorea?**
 - ▶ Makilajea, naturalena makilajea da.
- **Erlaxatzeko bainu bero bat ala masaia?** ▶ Masajia nahixao dot.
- **Baineran gorputza bits artean izkutatzea ala uraren azpian ikustea?** ▶ Espuma askokin bainatzia gustatzen jata.
- **Sekula ez zara irteten etxetik...**
 - ▶ Ispiluan azkenengo errepassua egin gabe.
- **Zer da itxura on bat izateko beharrezkoa?**
 - ▶ Makilatzea eta belarritxakuak.
- **Udarari begira hasi al duzu dietarik?**
 - ▶ Urtero hasten dot baina amaitxu sekula ere ez.
- **Zein litzateke loteriarik onena?**
 - ▶ Mementu honetan dirua da loterixa onena.
- **Norekin eta nora egingo zenuke ametsetako bidaia?**
 - ▶ Senarrarekin Caribera jungo nintzake.
- **Zer da edertasuna?** ▶ Zoriontasuna da gauzarik ederrena.
- **Maniaren bat?** ▶ Askok, baina ez dut bat bera gogoratzen.
- **Zer da besteengan onartzen ez duzuna?** ▶ Faltsukeria.
- **Ba al duzu biziorik?** ▶ Lana.
- **Akupuntura egin al duzu inoiz?**
 - ▶ Ez, baina behar izanez gero probatuko nuke.
- **Zer tatuatuko zenuke azalean?** ▶ Ezer ere ez.
- **Dendako zein hiru gauza eramango zenituzke irla batera?**
 - ▶ Eguzkia hartzeko krema, hidratante on bat eta gau erromantikoetarako kolonia exotiko bat.

DOINUA:

Juana Bixenta Olabe


Hilan hiruan goizeko bostak denok saltoka geneuzkan bihotzak Tossa de Marrera autobusez aste on bat pasatzeko ustez. Ikasbidaia guri heldua zaigu garaia hau da hau momentu alaia.

Bartzelonako Zooa ikusi "Copito de Nieve" eta guzti gauean martxarako gogoak baina goizean begizuloak eta gauean denak bakailauren hotsean nik nahiago dut saltsa berdean.

Batzuntzat azken eguna pena iritsi zen bidaiaren azkena jadanik guk Elgoibar aldera laister banijoala etxera gure etxera gu denok daukana maitea orain bukatu zaigu bidea.



KEPA MENDIKUTE



95eko UDAL AURREKONTUAK

SARRERAK

Zerga zuzenak	206.410.000
Zeharkako zergak	11.500.000
Tasak eta beste sarrera batzuk.....	192.104.977
Transferentzia arruntak.....	536.505.456
Ondare sarrerak.....	932.200
Kapitalaren transferentzia	36.047.367
Finantza pasiboan aldaketa.....	125.000.000

GUZTIRA..... 1.108.500.000

GASTUAK


Pertsonal gastuak.....	306.731.516
Ondasunen erosketa eta zerbitzuak...	162.933.845
Interesak	119.689.979
Transferentzia arruntak	240.761.477
Inbertsio errealak.....	187.344.800
Kapital transferentziak	3.132.000
Finantz aktiboan aldaketa	20.977.331
Maileguen amortizazioa	66.929.052

GUZTIRA 1.108.500.000

GASTUEN AURREKONTUA SAILEZ SAIL

- HAZIENDA
- FINANTZAK
- EKONOMIA

% 23




■ Pertsonal gastuak.....	29.938.225
■ Maileguen interesak	119.689.979
■ DEBEGESARI transferentziak	9.048.026
■ Familiei diru itzulpenak	500.000
■ Diputazioari zorra	20.977.331
■ Maileguen amortizazioa.....	66.929.052
■ Bulegoko eta bestelako gastuak.....	7.670.000
■ Altzarien eta ekipamenduen erosketa	1.050.000

GUZTIRA(luz 274.481.320) 255.802.613

- BARNE SAILA

% 10




■ Pertsonal gastuak.....	93.208.664
■ Gobernu organuak	12.898.740
■ Administrazioa	25.207.174
■ Hiritarren segurtasuna	55.102.750
■ Karguen dieta, garraio eta protokolo gastuak.....	1.100.000
■ Ondasunen erosketa eta zerbitzuak.....	18.714.000
■ Udaleko bateratze erakundeei.....	500.000

GUZTIRA(luz 117.669.771) 113.522.664

- GIZARTE PRESTAKUNTZA
- ONGIZATEA
- OSASUNA
- AZOKA


% 21



■ Pertsonal gastuak.....	101.330.500
■ Ondasunen erosketa eta zerbitzuak.....	14.210.000
■ Epaitegiari dirulaguntza	500.000
■ Irabazte xederik gabeko erakundeei dirulaguntza....	5.570.000
■ Partikularrei trasferentziak	1.100.000
■ Etxez etxeko laguntza programa	11.000.000
■ San Lazaro egoitza.....	11.000.000
■ Familiei	8.350.000
■ Ikasbat	3.113.257
■ Kale garbiketa.....	33.000.000
■ Zabor bilketa.....	36.900.000
■ Kontsumo bulegoa.....	1.550.000
■ Merkatu Plazako obrak.....	2.000.000

GUZTIRA(luz 220.075.134) 229.623.757

● EUSKARA



■ Pertsonal gastuak.....	3.264.915
■ DEBABE euskaltegia.....	10.280.194
■ Irabazte xederik gabeko Erakundeei.....	8.600.000
■ Enpresa pribatuei transferentziak.....	500.000
■ Norbanakoei dirulaguntzak.....	200.000
■ Bulego gastuak, argitarapenak, garraioa.....	710.000


GUZTIRA.....(luz 24.964.170) **23.555.109**

● KULTURA

● GAZTERIA

● KIROLA

● HEZKUNTZA



■ Pertsonal gastuak.....	22.893.590
Hezkuntza.....	4.679.954
Kultura.....	14.745.069
Kirola.....	3.468.567
■ Ondasunen erosketa eta zerbitzuak.....	43.080.000
■ Herriko jaiak.....	23.000.000
■ Eskolak.....	9.500.000
■ Musika eta Dantza Fundazioa.....	30.000.000
■ Haurtzaindegia dirulaguntza.....	6.500.000
■ Partikularrei dirulaguntza.....	2.700.000
■ Auzoetako jaiak.....	3.000.000
■ Kultur elkarteei dirulaguntza.....	5.100.000
■ Kirol elkarteei dirulaguntza.....	4.000.000
■ Herriko Antzokikohobekuntzak.....	11.608.251
■ Eskenatokiaren erosketa.....	3.489.140
■ Liburutegiko liburuen erosketa.....	1.500.000
■ Ekipoen erosketa.....	2.751.080
■ Mintxetako berritze eta argizatze lanak.....	1.358.569
■ Kiroldegiko hobekuntzak.....	500.000

GUZTIRA.....(luz 307.686.550) **170.980.630**


● HIRIGINTZA

● URA

● KALEAK

● NEKAZAL LURRAK

% 28



■ Pertsonal gastuak.....	56.095.622
■ Ondasunen erosketa eta zerbitzuak.....	13.883.000
■ Estatuko zergak.....	13.616.845
■ Alkantarila sistema.....	1.500.000
■ Kaleen konponketa.....	4.450.000
■ Argiztapenaren kontserbazioa.....	5.000.000
■ Kaleetako argindarraren kontsumoa.....	12.500.000
■ Argindarraren hornidura.....	3.500.000
■ Ur patzuergoari.....	38.250.000
■ Lurren erosketa.....	3.400.000
■ Lansarien zenbatekoa.....	1.500.000
■ Foruen Plaza 6ko lokalaren 2. ordaina.....	15.000.000
■ Inmuebleen konponketak.....	1.000.000
■ Aizkorriko 4ko kolektorea eta ur instalazioa.....	3.320.613
■ Eliza inguruko saneamendua.....	4.000.000
■ Agarreko depositoko lanak.....	32.350.000
■ Altzolako tuberien konponketa.....	972.848
■ 1988ko uholdeetako obren finikitoa.....	26.789.985
■ San Roken espaloia eraikitzea.....	729.602
■ P. Muguruza 7an espaloia eta horma eraikitzea.....	14.274.712
■ S. Klarako bidegurutzeko obrak.....	39.000.000
■ Lansarien zenbatekoa.....	750.000
■ Nekazal lurretan egin beharreko lanak.....	20.000.000
■ DEBEMEN.....	3.132.000

GUZTIRA.....(luz 210.123.055) **315.015.227**

MOTZAK

Elgoibarko V. Duathloia hilaren 29an

Urgazi Triatlhoi Taldeak, Elgoibarko Udala eta Radio Estudio irrati katearen laguntzarekin Elgoibarko V. Duatlhoia antolatu du hil honen 29an, larunbata. Ohi den bezala, hiru lasterketa izango dira; lehenik saltaka 7 km, gero 33 km bizikletan eta azkenik saltaka beste 3 km. Lasterketa Euskal Zirkuitorako baliagarria da eta federatu zein ez federatuek izango dute parte hartzeko aukera. Sei kategoria ezberdin ezarri dira, 14 urtetik hasita eta 60 urtetik gorakoentzat bitartean. Izena emateko kuota ordaindu Caja Laboral-eko 002314-7 kontu korronte zebakian eta Kiroldegian utzi beharko da eskaera hilaren 27a baino lehen. Lasterketa arratsaldeko 15,30etan hasiko da Plaza Handian.

Automodelismo erakustaldia

Datorren larunbatean, hilak 29, auto txikien erakustaldia izango da Mintxetan goizeko 11etatik aurrera. Bigarren edizio honetan 15 gidari auto txikiekin zein baino zein trebezia zailagoak egiten ikusteko aukera izango dugu. Sarrera dohainik.

Patin ikastaroa

Elgoibarko Udal Kirol eta Euskara Zerbitzuak Deba bailarakoekin bateginda, patin ikastaroa antolatu dute maiatzeko lehen hiru larunbatetan. Ikastaroa goizeko 9etatik eguerdiko 1ak arte izango da Olaizaga kiroldegian. Izena emateko 74 44 15era deitu edo Kirol Zerbitzutik pasatu.



Josemi Gabilondo:

"Kotxe barruan buru hotza behar da"

■ **Noiz hasi zinen kotxe igoeretan?** - Orain 15 urte nere lehengusuak, Juan Mari Ansolak, laga zian kotxia eta hola hasi nitzan, poliki poliki. Gainera betidanik gustau izan jataz kotxiak, motorrak, mekanikia...

■ **Zein kategoriatan korritzen duzu?** - Kotxearen arabera izaten da hori, kotxea hobia ala txarraua, marka bat edo beste bat... Ni Grupo R deiturikuan nabil, R5 Turboak, Seatak, Alfa Romeoak, BMWak eta holakuak sartzen diaz.

■ **Iaz Espainiako txapeliduna izan zinen.** - Bai, "Mendiko Klasikoak" deitzen dan txapelketa da, Espainia mailan. Karrera desberdinak egoten dia eta irabazten dozun bakoitzeko hainbeste puntu lortzen ditxuzu. Puntu gehixen lortzen ditxunak irabazten dau eta nik iaz irabazi naban.

■ **Aurtengo estrenaldia Arrateko igoera izan zenuen, ez?** - Bai, nere kategorixan bigarren geratu nitzan eta generalian bederatzigarrena. Kategorixa diferentia egon arren, generalian danak batera sartzen gera.

■ **Ez al da kirol arriskutsua?** - Badauka arriskua baina kontuz ibiliz gero eta nerbixuak ondo, ez da problemarik egoten.

Askotan peligrua ipintzen dabana jendia izaten da, bide bazterrian geratzen dia hobeto ikusteko eta arriskua sortzen dabe, norbera ere kontuz jun bihar iza-



ten da ezer ez pasatzeko eta ez gera hain gustora ibiltzen.

■ **Istripurik inoiz?** - Txikiren bat bai. Loterixia bezelakua da, zenbaki guztiak daukazu eta noizbait tokatu behar.

■ **Zein kotxe daukazu?** - Renault Alpiner. Pisu gitxi, 700 kilo inguru, oso bajua eta zabala da, beraz, establia. Motorra flojo xamarra daka baina hobia karuak dia. Ostanzian kanbixuak motzauak izaten dia, sarri aldatu ahal izateko, mendiko bizikle- tekin bezela.

■ **Zer behar du kotxe korrikalari batek?** - Nerbixuak kontrolatzia da inportantiena, buru hotza eukitzia. Argi euki bihar da lehenengo norberan gorputza dauala eta gero irabaztia. Trankil jun bihar da.

■ **Entrenamenduak zer?** - Ape- nas, hemen ez dao zirkuitorik eta ezin leike inun ibili. Karrerara jun eta hantxe entrenatzen gera gu.

■ **Hurrengo lasterketa?** - Ez dakitx, oin aberixa txiki bat dakat.

Lehenengo konpondu eta gero ikusiko dot. Lehen danetara juten nitzan baina oin piskat aspertuta nao ze diru asko gastatzen da eta sarrerak oso txixiak dia.

- Adina: 41
- Ametsetako karrera? Formula 1.
- Karrerako kotxe bat? Barketak.
- Lasterketako abiadura? Orduko 180 km.

San Francisco 12-14, Tel. 74 05 49

San Bartolome 18
☎ 74 08 49

ZALDUA
ITURGINTZA

GAS ETA BEROGAILU
INSTALAKUNTZAK

Urasandi 26. Tel: 74 05 30

magu's

ILEAPAINDEGIA
EDERGINTZA

San Roke 6 behea tel. 74 34 91

Bailarako final laurdenak jokatzeko ari dira eskolarteko jokuetan

Urrian hasi ziren eskolarteko jokuetan Elgoibarko irabazleak zeintzuk izan diren eskubaloian, saskibaloian eta areto futboleko jakin ondoren, bailara mailako txapelketa jokatzeko dihardute. Saskibaloian esaterako, infantiletan eta alebinetan, zuzenean pasatu dira final laurdenetara. Eskubaloian eta areto futbolekoan, berriz, bi partiduko jokatu behar izan dituzte kategoria bakoitzean final laurdenetarako sailkatu diren ala ez jakiteko.

Saskibaloian infantiletan, Ikas Dream Team taldea eta alebin mutiletan Pilar B igaro dira final laurdenetara. Alebin nesketan Malapek 41 eta 23 irabazi zion etxean jokatuak partidua Oñatiko taldeari eta orain kanpoan jokatzeko tokatzen zaio hil honen 29an. Eskubaloian infantiletan zuzenean pasa dira final



laurdenetara Ikas Xeros mutiletan eta Ikaslakers eta Ikas Dodotis nesketan. Alebinetan oraindik ez dituzte sailkapeneko partidurik jokatu. Areto futboleko herriko irabazleak Urtxis eta Herri Inter izan dira infantiletan eta Ikas Levis eta Mendaro, alebinetan.

MOTZAK

Mendaroko XVI. kros herrikoa

Datorren igandean, hilak 30, Mendaroko Udalak antolatzen duen Mendaroko Kros Herrikoia XVI. edizioa burutuko da Mendaroko kaleetan zehar. Lau lasterketa ezberdin izango dira kategoria edo mailaren arabera. Lehena goizeko 10,30etan alebinei dagokiona izango da, eta burutu beharreko ibilbidea 1400 metrokoa izango da. Infantilak 10,45etan aterako dira 2650 metroko lasterketa egin behar dutelarik. Ondoren gazteen 5050 metroko lasterketa hasiko da 11,15etan hain zuzen, eta bukatzeko helduen txanda eguerdiko 12etan etorriko da. Azken hautzat 9850 metroko ibilbidea prestatu du antolakuntzak.

Elgoibarko Saskibaloia Taldearen bilera

Elgoibarko Saskibaloia Taldeak dei egiten die taldekide diren guztiei astelehen honetan, hilak 24, Kultur Etxean izango den bilerara aurreneboraldiari buruz, patrosinazio moduari eta antzerako gaiari buruz hitz egiteko. Bileran, arratsaldeko 8,15etan izango da.

ELGOIBARREN IRABAZLE GERATU DIREN TALDEAK

KATEGORIA	ESKUBALOIA	ARETO FUTBOLA	SASKIBALOIA
Infantil neskek	Ikas Lakers	Urtxis	Mendaro
Infantil mutilak	Ikas Xeros	Herri Inter	Ikas Dream Team
Alebin neskek	Ikas Levis	Ikas Levis	Malape
Alebin mutilak	Ikasmormokak	Mendaro B	Pilar B

AGENDA

FUTBOLA Mintxetan Larunbata 22

12,00: Urki - Almen (Jubenilak)

17,00: Haundi - Getxo

Igandea 23

12,00: Eibartarrak - Zumaiaiko

16,30: Elgoibar - Union Txiki (Jubenilak)

ESKUBALOIA Kiroldegian Igandea 23

12,00: Elgoibar - Bidebieta (Jubenil mutilak)

FUTBITOA Urasandin Igandea 23

KOPA

9,00: Gruas Pana - Tropiko

10,00: Lucky Luke - Sporting Aldavas - Replastisa

LIGA

11,00: King-Kong - U. de Chile D.T. Veterans - G. Garcia

12,00: Kosakos - Hunde Verboten San Roke - Karkis

13,00: Pedruskos - Mimox

EMAITZAK

FUTBOLA

Haundi 0 - Vasconia 0

ESKUBALOIA

Bermeo 10 - Pagoaga Elgoibar 7 (Kadete neskek)

Zarautz 16 - Elgoibar 28 (Kadete mutilak)

Elgoibar 28 - Tolosa 24 (Jubenil mutilak)

FUTBITOA

LIGA

U. de Chile 2 - Pedruskos 4

Mimox 4 - San Rokatarrak 1

Karkis 1 - Kosakos 0

H. Verboten 1 - D. T. Veterans 3

G. Garcia 2 - King kong 0

KOPA

La Maxia 1 - Oraiko Cafe 1

Berrogei Duro 3 - Resto del mundo 3

Rua 2 - Dinamo Kalimotxo 3

Rebel Urbi 1 - Fotero 2

KALMAN, S.A.:

Galdaragintza finean espezialistak


1972. urtean hiru pertsona Kalman sortzeko batu ziren. Ermuaranbideko Kamiñerokuan zegoen "Construcciones Metalicas Gure-Ola" enpresa hartu zuten, birmoldatu, eta galdaragintza etorkizuna izan zezakeen zerbait zela ikusirik, Kalman jaio zen.

Haserako hiru bazkideetatik batek bakarrik ezagutzen zuen lehenagotik galdaragintzaren mundua. Beste biak zerikusirik ez zuten lanetan ibilitakoak ziren. Galdaragintza finaren alorrean hasi ziren lanean puntako teknologia aplikatuz. Bulego teknikitik CAD/CAM sistemaren bitartez aginduak bidaltzen dira lantegian dauden makinetara, haiek automatikoki lan egiten dutelarik. Lantegian makina ezberdinak dituzte, punzonadoreak, tolesteko bi makina, ebakitzeko beste bat, soldatzeko postuak, margotzeko gunea... Laster piezen koipea kentzeko makina erosiko dute eta kalitateari dagokion homologazioa duela bi urte lortu zuten. Langileek planoak irakurtzea jakitea ezinbestekoa da. Hala ere, asko eta asko Kalman-en bertan formatutakoak dira, ia ezinezkoa baita kualifikatutako eskulana topatzea.

Galdaragintza finean txapa mehearekin egiten da lan, milimetro t'erdiko lodierakoa. Erreminta makinaren egitura metalikoa egitean datza galdaragintza. Karenatuak, metalezko ateak eta babesgarriak, kontrol numerikoarentzako pupitreak eta botoi-panelak, armairu eta koadro elektrikoak, prezisiozko piezen serie txikiak eta telekomunikazio eta informatikarako planoen araberako edozein pieza fabrikatzen



■ ■ Kalman-en bi ikuspuntu desberdin, barrutik eta kanpotik.



dute, galdaragintza finari dagokionean, beti ere. Bigarren iharduera modura, manutentzioko artikulua egiten dituzte otarrak, estanteak, paletak, kontenedoreak... hauetariko zerbait automozioari zuzenduak.

Urterik urte hazten joan den enpresa da. 1987an Ibaitea industrialdera aldatu ziren, 1600 metro karratuko espazioa hartuaz eta honela banatua: bulego tekniko, administrazioa, salmenta bulego eta lantegia. Langile kopurua ere handituz joan da, haseratik gaurdaino sei bat langile hartu dituzte.

Bezero gehienak Elgoibarren dituzte eta zenbait Bizkaia aldean. Estatuan Fasa-Renault enpresarentzat egin izan dute lan baina gaur egun ez dute Euskal Herrikan kanpoko eroslerik ez eta bezerorik ere atzerrian. 1993.a urte txarra izan arren 94a benetan onugarria izan zen. 250 milioi pta fakturatu zituzten eta aurtengo ere iazkoa bezain ona edota hobea izatea espero dute.

ENPREAREN FITXA

- ✘ **IZENA:** KALMAN, S.A.
- ✘ **SORRERA URTEA:** 1972
- ✘ **SORTZAILEAK:** Ramon Idigoras, Enrike Aizpurua eta Alberto Garitano.
- ✘ **GERENTEA:** Ramon Idigoras.
- ✘ **IHARDUERA NAGUSIA:** Galdaragintza fina.
- ✘ **BIGARREN IHARDUERA:** Manutentzioko artikulua.
- ✘ **FABRIKATZEN DUTEN PRODUKTUA:** Galdaragintzan: erraminta makinenzako egiturak. Manutentzioan: kontenedoreak, otar metalikoak, karroak...
- ✘ **LANGILE KOPURUA:** 23
- ✘ **URTEKO FAKTURAZIOA:** 230 milioi.
- ✘ **HELBIDEA:** Ibaitea kalea, 18
- ✘ **TELEFONOA:** 74 18 62
- ✘ **FAXA:** 74 21 04

93 haur hasiko dira eskolan datorren ikasturtean

Gauregun ikastetxe guztiek duela 10 urte baino ikasle gutxiago duten arren, azken urteotan jaiotze tasa bere horretan mantendu da itxuraz. Herriko OHOKo hiru ikastetxeak aurrematrikulazioa egina dute eta hango datuen arabera, aurten 93 haur berri sartuko dira OHOKo geletan, iaz baino 16 gehiago.



Ikasle kopuruaren banaketa aztertuz, Ikastolak haur gehien jasotzen segitzen du, matrikulatutako haurren %38,7 bereganatzen du hain zuzen. Ondoren Herri Eskolak jarraitzen dio %34,4rekin. Azpimarratzekoa da Herri Eskolak izan duen igoera, 92-93 ikasturtean eskola honetan haurren %10,8 baino ez zegoela kontuan hartuz gero. Azkenik, Pilar ikaste-txea dago haurren %26,8rekin.

Pribatua publikoaren aurretik

Aurtengo datuek erakusten dutenaren arabera, guraso elgoibartarrek irakaskuntza pribatuaren aldeko jarrera hartu dute oraingotan ere. Pribatua gurasoen %65,5ek aukeratu du, publikoa berriz, %34,4ak baino ez, nahiz eta irakaskuntza publikoaren aukerak gorakada nabarmena ezagutu duen iazko datuekin alderatuz. Alboko taulan ikastetxe bakoi-tzak azken bost urteetan izan duen ikasle kopurua agertzen da eta aurtengo prebisioren arabera, matrikulatuko direnen kopurua ere bai.

Ikasturtea	Ikastola	Pilar	Herri Eskola	GUZTIRA
91-92	47	27	10+4 *	88
92-93	40	26	8	74
93-94	30	23	13	66
94-95	42	16	19	77
95-96	36	25	32	93

Iturria: Udal Euskara Zerbitzua

(*) Urasandi eta P. Muguruza ikastetxeak zeuden oraindik.



ZERAMIKAK

Erakusketa eta bulegoa:
Antonio Arrillaga, 6-8
behea
83 Postakutxa
Tel. 74 33 44 - 74 06 92
Fax 74 37 11

Biltegia:
Arregitorre, 10 - 14 behea
Tel. 74 20 38 - 74 23 71
20870 - ELGOIBAR
Gipuzkoa



OIERKI IGONGAILUAK

Urrutira deitu gabe bertakook segiduan
konponduko dizugu igongailua

☎ (943) 11 35 15 • ☎ ABERIAK (943) 11 35 15
Bista Eder, 11 (sotanoa) • 20600 EIBAR



Salvador Celaya

ITURGINTZA

BILTEGI ETA BAINUGINTZA
BEROGAILU ELEKTRIKO ETA GASDUNAK

Errosario 22. Tel: 74 04 94



EGONDO, s.a.l.

METALEZKO ERAIKUNTZAK
KALDERERIA LANAK OROKORREAN

Deba kalea 4-7 ☎ 74 34 08-04 FAX 74 34 08

Ekainaren 10ean tanbor hotsak kaleak jantziko ditu

Kuadrilan elkartzen ziren guztietan tanborradaren gaia irteten zen. Asko ziren aspaldiko tanborradaz gogoratu eta berriz ere martxan jartzeko gogoia zutenak. Urtarril aldera, Donostia Eguneko tanborrada ikusita, haserako gogo hura gauzatzea pentsatu zuten, nola edo hala. Honela bada, Mariaje Iranzo eta Amaia Mugerzak hartu zuten asunto guztiaren ardura.

Kultura Saileko teknikaria den Blanka Salegirekin hitzegin zuten lehenbizi, Udaletxetik laguntzarik izango zuten jakin asmoz. Honek baietza eman zien eta hurrengo pausoa deialdi publikoa egitea izan zen. Bileraguna jarri eta haseran jende gehiegi animatu ez bazen ere, bigarren eta hirugarrenean, kuadrilak ugaritzen joan ziren. Bost bilera egin dituzte guztira eta azken zenbakia zehaztu da, 154 pertsonak eman dute izena tanborradan parte hartu ahal izateko. 18 urtetik hasita, Elgoibarko hainbat eta hainbat kuadrilak agertu dute parte hartzeko gogoia eta ilusioa. Bada lehengo tanborradan parte hartzen zuen kuadrilarik ere.

10 urte pasa dira Elgoibarren azken aldiz nagusien tanborrada egin zenetik. Garai haietan, gainera, asko gutxiago izaten omen ziren eta guztiak gizonetzkoak. Aurten, berriz, ekainaren 10ean, hain zuzen, neska-mutilak arituko dira elkarrekin.

Joan den astezkenean hasita, astean bi entsaio egingo dituzte. Diru



■ ■ Orain dela 10 urte egin zen nagusien tanborrada azken aldiz.

nahikoa ez dagoenez, ez da posible izango entsaioetara tanborrak ekartzeari; beraz, ohol batzuekin moldatu beharko dira. Elgoibarren bertan badaude zenbait arropa, halere, ez dira nahikoak eta Donostiako denda batean alokatuko dira, bai trajeak bai eta tanborrak ere.

Zaldia, gastadoreen eskudria, zuzendaria, Frantsesak, Elgoibarko Musika banda, sukaldariak barriekin eta beste hainbeste sukaldari goilara eta tenedore erraldoiekin eta ohizkoa den oilaskoarekin. Hona hemen tanborradaren egituraketa. Guztira bost pieza joko dituzte: Donostiako mar-txa, Diana, Idiarena, Tatiago eta Polka. Trinitate egunean, ekainak 10, gaueko 10,30etan hasita Plaza Haunditik abiatuko da tanborrada; gero Santa Anatik jarraituz, Antonio Arri-

llaga, Plaza Haundia, San Bartolome, San Frantzisko, Maalan buelta, San Frantzisko, Errosario kalea eta Plaza Haundian amaituz, bertan pieza guztiak joko dituztelarik.

Gazte batzuen ekimena izan da azken urteetan galdua zegoen ohitura hau berreskuratzea eta beste hainbeste gazte agertu dira prest parte hartzeko. Ez da, ez, gauza makala Elgoibarren horrenbeste gazte borondatez prest egotea ekintza batean parte hartzeko. Hori dela eta, ea tanborrada ohitura bihurtzen den eta aurtengo ilusioari eutsiz datorren urtean bai eta hurrengoetan ere antolatu eta aurrera eramaten den.

Edergintza

- Aurrepegi tratamenduak
- Gorputz tratamenduak
- Masaja
- Sauna
- Solariuma

San Frantzisko, 49 - 1 esk. Tel. 74 43 03

PEDRO PEREZ BERISTAIN

San Roke, 30 behe. ☎ 74 36 52 - 74 27 89

KOMUNITATEAREN ERATXADAK - BERRIZTATZEAK - PINTAKETA

Etxebizitzak

ETXE BAT daukat alokatzeko. Guztiz jantzita. Hiru gela, jangela, sukalde eta igogailua.

☎ 74 37 41

PISU BAT erosiko nuke.

☎ 74 08 20

Gauz deitu

APARTAMENDU BAT daukat Jakan, udaran alokatzeko.

☎ 74 15 22

PISU BAT alokatzen dut. Altzari eta guzti.

☎ 74 32 45

Lan orduetan

3 hilabetetarako bi bainu gela dituen ETXE BAT alokatuko nuke.

☎ 74 41 32 Edurne

APARTAMENDU BAT daukat Benidormen alokatzeko. Levanteko hondartzako lehen ilaran. Igerilekua eta aparkalekua.

☎ 74 16 57

ETXEBIZITZA BAT saltzen da. Santa Klara 24, 5-B.

☎ 74 32 98

Garajeak

GARAJE BAT dut alokatzeko pista beltzaren azpian, Institutu parean. Marraduna.

☎ 74 39 19

GARAJE BAT saltzen dut ANAYAK edifizioan. 15m² eta bi planta.

☎ 74 25 01 / 10 82 43

GARAJE itxi bat saltzen dut Santa Ana 46 zenbakian

☎ 74 13 67

Lana

ETXEKO LANAK egiteko prest nago. Egun osoan edo orduka. Gauz PERTSONA NAGUSIAK ere zainduko nituzke.

☎ 75 62 57

Mutil gazte amerikarra INGELESEKO KLASEAK emateko prest dago.

Mendaron eta baita interesatuen etxeetan ere.

☎ 75 62 13 Alex

ENPRESARIALESETAN DIPLOMATUA ofizina lanak edo beste edozein lan egiteko prest dago.

☎ 74 39 89 Mari Karmen

Neska euskalduna ETXEKO LANAK edota UMEAK ZAINTEKO prest dago. Goizez.

☎ 74 09 02 Kristina

HAURRAK ZAINDU edota ETXEKO LANAK egiteko prest nago.

☎ 74 43 16 Mari Karmen

Goizez

Bestelakoak

KATU BAT galdu nuen Ermuaranbide kalean orain dela astebete bat. Siamesa da, marroiska, emea eta tratamenduan dago gaisorik dagoelako. Topatu duenak deitu dezala.

☎ 74 35 48 Puri

35-45 urte bitarteko JENDEA EZAGUTU NAHI NUKE, gizon nahiz emakumezkoak, mendizaleak, astebukaeretan mendi irteerak egiteko. Deba Behea ingurukoak.

☎ 76 31 35

CARITASEK sukaldarako eta salarako ARMARIO BAT behar du. Baita sukaldarako MAHAI BAT eta ume txikiak mahaian esertzeko AULKI BAT ere.

☎ 74 15 09 ☎ 74 12 57

PERTSONA BAT behar dugu pisu bat osatzeko Donostian (Amaran).

☎ 61 93 14

Deitu gauz

Salerosketak

OPEL CORSA SWING 1.2 BAT saltzen dut. 5 atekoa. Oso egoera onean. SS-AB.

☎ 75 60 32

3,5 pulgadako disketeradun ORDENAGAILU eta INPRESORA BAT erosiko nituzke.

☎ 74 07 30 Unai

TAPIFLEX KOLTZOIA ETA BURUKOA saltzen ditut, 1,50 x 1,90 neurrikoak eta oso egoera onean. Dena 20.000 pta.

☎ 74 03 69 Kristina

LORITO BAT saltzen dut kaiola handi batekin batera.

☎ 74 26 32 Txomin

LANBRETTE 150 (Bi-X) eta MOBILETTE BAT saltzen ditut.

☎ 74 26 32 Txomin

ERREPIDE BIZIKLETA BAT saldu nahi dut. "Contini" kuadroa eta "Simano" tresnak ditu. Prezio ona.

☎ 74 00 67 Martin

Jatorduetan

Super nintendo KONTSOLA BAT SALTZEN DUT.

Mando batekin, 8 jokurekin eta adaptadorea Amerikar eta japoniar jokuentzat. Dena 23.000 pta

☎ 74 05 80/74 18 34 Asier

KANPING-DENDA BAT saltzen dut. Oso handia da eta egoera oso onean dago.

☎ 74 15 22

MATRIMONIO LOGELA oso bat, 90eko bi ohe dituen LOGELA oso bat, MATRIMONIO LOGELA puente bat, SALA oso bat eta SUKALDE oso bat SALTZEN DITUT trasladoagatik.

☎ 74 33 19

Itik 3etara / 7,30etatik 10etara

PREMIAZKO TELEFONOAK



OSASUNA

Anbulategia:

Larrialdiak.....461111

Txanda hartzeko.....743354

Planning742950

Alkoholiko Anonimoak..740385

D.Y.A (anbulantzia) ..464622

Gurutze Gorria.....743864

Mendaroko Ospitala.756264

Drogomenpekotasun Z.741008

Odol Emaileak743936

GARRAIOAK

Eusko Trenbideak.....740442

PESA (Eibar).....112131

Taxi Geltokia.....740898

UDALA

Euskara Zerbitzua.....744366

Kirol Zerbitzua744415

Kultura Zerbitzua.....742158

Mendaroko Udala756100

Ongizate zerbitzua...743736

Udaletxea741050

Udaltzaingoa741394

BESTELAKOAK

Caritas740142

Elgoibarko Izarra.....741626

IMI.....741196

Kontsumo Bulegoa ...743088

Liburutegia743525

Musika Eskola742145

Mintxeta744315

Parrokia.....740842

Polikirolegia741361

Postetxea.....741547

HIRUGARREN ADINA

San Lazaro Egoitza...740296

Zaharren Biltokia.....740526

IKASTETXEAK

Herri eskola.....74 08 79

I.M.H.74 41 32

Institutua74 02 67

Ikastola74 44 41

L.H.I.....74 44 80

Pilar Ikastetxea74 13 31

KOMUNIKABIDEAK

BARREN.....74 41 12

El Diario Vasco74 40 73

El Mundo74 22 67

El Correo Español...74 10 82

Egin.....11 84 21

Deia74 11 57

Zazpiki irratia74 34 74

21 OSTIRALA

19,00 HITZALDIA

Gaia: Reiki sendatze sistema
Hizlaria: Ana Otero del Pino
✓ Kultur Etxean

22,15 ZINEA

"El color de la noche"

22 LARUNBATA

12,00 ZAZPIKIREN BILERA

Gaia: Programazioa
✓ Kultur Etxean

19,30-22,15 ZINEA

"El color de la noche"

23 IGANDEA

16,30 ZINEA

"Y en Nochebuena se armó el Belén"

19,30-22,15 ZINEA

"El color de la noche"

24 ASTELEHENA

20,15 SASKIBALOI TALDEAREN BILERA

✓ Kultur Etxean

22,15 ZINEA

"El color de la noche"

25 ASTEARTEA

09,30-11,00-15,00 KONTZERTU PEDAGOGIKOAK

Donostiako Udal Txistulari Taldearen eskutik
✓ Herriko Antzokian
Antolatzailea: I. Bereziartua
Musikeskola

22,15 ZINEA

"Timecop"
(Ikuslearen eguna)

27 OSTEGUNA

22,00 SOINU KONTZERTUA

Soinujolea: Iñigo Aizpiorea
✓ Herriko Antzokian
Antolatzailea: I. B. Musikeskola

22,15 ZINEA

"El color de la noche"

Prebentzio Astea

25 asteartea

19,30 MAHAINGURUA

"Drogomenpekotasunak: lehen eta gero"

Hizlariak: Proyecto Hombre, El Patriarca, Remar eta Alcoholicos Anonimos elkarteetako kideak.
✓ Kultur Etxean

27 osteguna

19,30 HITZALDIA

"Narkotrafikoa eta korrupzioa"

Hizlaria: Pepe Rei (Egin)
✓ Kultur Etxean

28 ostirala

22,15 ANTZERKIA

Antzezlanak: "Pasa la coca, abuelo". Taldea: Algara.

✓ Herriko Antzokian
Sarrera: 200 pta
Antolatzailea: ERROTATXO

txandak FARMAZIAK:

EGUNA	EGUNEZ	GAUEZ
22, larunbata:	Bidasolo	Anduaga
23, igandea:	Bidasolo	Anduaga
24, astelehena:	Yudego	Yudego
25, asteartea:	Yudego	Yudego
26, asteazkena:	Yudego	Yudego
27, osteguna:	Yudego	Yudego
28, ostirala:	Ormazabal	Ormazabal

FARMAZIEN ZUZENBIDEAK:

Anduaga: Mendarozabal 1, Mendaro
Tel. 75 61 42/75 60 27

OKINDEGIA:

23, igandea: ZABALETA

ZINEA



El color de la noche

Zuzendaria: Richard Rush
Antzeleak: Bruce Willis, Jane March, Ruben Blades, Lesley Ann Warren.

Bill Capa psikologoa Los Angeles-era joango da bere paziente batek bere buruaz beste egin eta gero. Gertakari horretatik ihes egin nahian bere lankide den Moore dokotorearengana joko du. Bere paziente batek hil egin nahi duen susmoa duela esango dio honek eta beranduago, labankadaz hilda agertzen da. Hilketatik ikertzearen pazienteen ardura hartuko du eta artean Rose ezagutuko du, emakume sensual eta enigmatikoa.



Timecop (Policia en el tiempo)

Zuzendaria: Peter Hyams
Antzeleak: Jean Claude Van Damme, Ron Silver, Mia Sara

Jean Claude Van Damme egiten dituen akziozko pelikulen ildoko pelikula da bete-betean. Oraingoan denboran bidaiatzen duen polizia bat da protagonista. Duela 10 urte Van Damme-ren emaztea hil zuten. Orain arte heriotzak bueltarik ez zuen zerbait zen baina Timecop-ek denboran atzera egingo du bere emaztea heriotzetik salbatzeko.



ALKATE ETA ZINEGOTZIEN EJENPLUA NAHI

DUCU! 1995eko maiatzean UDAL HAUTESKUNDEAK direla eta **ELGOIBARKO IZARRA Kultur Elkarateak** **ZERA ADIERAZTEN DU:**

Elgoibarko herria, % 70a euskalduna edo ia euskalduna izanik, ahalegin serioa egiten ari dela laster batean herri euskalduna izateko.

Ahalegin honetan administrazioak eta politikoeak aitzindari eta eredu izan behar dutela, datozen lau urteotan alkate eta zinegotziek euren funtzioak, batez ere, euskaraz beteaz.

Horregatik **ELGOIBARKO ALDERDI POLITIKOEI ZERA ESKATZEN DIZUEGU:**

- Alderdi bakoitzeko zerrendaburua edo alkategaia bere eginbeharrak euskaraz burutzeko gauza izatea.

- 90-94 legealdian izan duzuen zinegotzi kopurua kontutan izanik:

- EAJ-PNVri, lehenengo zortzi hautagaiek euskaraz jakitea.
- HBri, lehenengo laurek euskaraz jakitea.
- EAri, lehenengo biek euskaraz jakitea.
- PSE-EEri, lehenengo biek euskaraz jakitea.
- Beste alderdiren bat aurkeztuko balitz, hautagaien zerrendan euskaraz dakien ahalik eta hautagai gehien egotea.

- Udal Batzordeetako lehendakariak euren betebeharrak euskaraz egiteko gauza izatea.

- Hauteskundeetako kanpainan, euskaldunok Elgoibarren garen portzentaia aintzakotzat hartuz, euskarari lehentasuna ematea.

Eskaera hauek, Herriaren onerako, kontutan hartu eta beteko dituzuelakoan,



ELGOIBARKO IZARRA
Kultur Elkartea





calcul mecano

BULEGO MATERIALA

PAPERDENDA



San Bartolome, 7
Tel/Fax: 74 43 41
20.870 Elgoibar



- ▼ Bulegorako makinak
- ▼ Marrazketa ekipoak
- ▼ Altzariak
- ▼ Erlojugintza industrial
- ▼ Papergintza tekniko eta orokorra
- ▼ Segurtasun kutxak
- ▼ Erregistradorak



*Asistentzia
teknikoa*

